

ERASO SEXISTAK ETA LGTBIQ- FOBIKOAK PREBENITZEKO ETA HORIEN AURREAN JARDUTEKO PROTOKOLOA LEITZAKO GELTOKIA



AURKIBIDEA

1. Sarrera
2. Arau-esparrua
3. Helburuak
4. Terminologia
5. Antolamendu-egitura
6. Aplikazio-esparrua
7. Jarduera-jarraibideak
8. Baliabideak

1. 1. SARRERA



Plazaolako Geltokia ondorengo laguntzen esparruan gauzatu da: «Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana - Europar Batasunak finantzatua - NextGenerationEU» eta 2023-2027 Nafarroako PEPACen Tokiko Garapen Parte-hartzaileko 7119.01 neurria.

Plazaolako Geltokia espazioa Leitzan kokatua, topagune, elkarbizitza eta dinamizazio komunitarioko ingurunea da, aisialdi, kultura eta ostatu testuinguruetan pertsona anitz biltzen dituen. Ezaugarri horiek dituzten espazioetan, non askotariko gizarte-harremanak eta etengabeko interakzio-dinamikak elkartzen diren, ezinbestekoa da pertsona guztientzako ingurune segurua, errespetuzkoa eta inklusiboa bermatzea.

Alde horretatik, eraso sexisten eta LGTBIfobikoen aurrean prebentzio eta jarduketa protokolo bat egin eta inplementatzeak erantzuna ematen dio egon daitezkeen indarkeria egoerak aurreikusi, antzeman eta lantzeko beharrianari, diskriminaziorik gabeko espazio bat eraikitzen lagunduz, indarrean dagoen araudiarekin eta berdintasun, errespetu eta bizikidetzaren printzipioekin bat.

Dokumentu honek jarduera-esparru bat ezartzen du, zerbitzuaren enpresa edo pertsona esleipendunak bere gain hartu eta integratu beharko duena, eta konpromiso esplizitu bat eratzten du indarkeria matxistak eta LGTBIfobikoak prebenitzeko, bai eta tratu onean eta aniztasunarekiko errespetuan oinarritutako kultura sustatzeko ere.

Era berean, protokolo hau tresna dinamikoa, irekia eta etengabe berrikusten ari dena da, eta espazioaren errealitatera, erabiltzaileen ezaugarrietara eta inplementazioan zehar bildutako esperientziara egokitu beharko da. Alde horretatik, progresiboki garatuko eta hobetuko da, erakunde kudeatzailearekin koordinatuta eta inplikaturako eragileekin hitz eginda, eta etengabe eguneratu ahal izango da, eraginkortasuna eta egokitasuna bermatzeko.

2. ARAU-ESPARRUA

Protokolo hori lege-esparru honetan oinarritzen da:

- Emakumeen aurkako indarkeriari eta etxeko indarkeriari aurrea hartzeko eta haien kontra borrokatzeko Europako Kontseiluaren hitzarmena (Istanbulgo Hitzarmena)
- Emakumeen aurkako diskriminazio-mota guztiak desagerrarazteko Nazio Batuen Konbentzioa (CEDAW)
- 14/2015 Foru Legea, emakumeenganako indarkeriari buruzkoa
- 17/2019 Foru Legea, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzkoa
- Estatuko 4/2023 LGTBI eta trans legea
- 8/2017 Foru Legea, ekainaren 19koa, LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzkoa

3. HELBURUAK



Helburu orokorra

Aterpetxea eta espazio soziokulturala ingurune segurua, inklusiboa eta indarkeria sexistarik eta LGTBQfobikorik gabekoa izan dadin bermatzea, prebentzio, detekzio, esku-hartze eta jarraipen neurriak ezarriz, errespetuan, berdintasunean eta elkarbizitzan oinarritutako kultura sustatuz.

Helburu zehatzak

- ✓Jokabide sexistak, LGTBQfobikoak edo diskriminatzaileak prebenitzea, sentsibilizazio-, informazio- eta prestakuntza-ekintzen bidez.
- ✓Generoaren eta sexu aniztasunaren ikuspegia espazioaren eguneroko kudeaketan txertatzea.
- ✓Sentsibilizazioa eta gaitzespen esplizitua ikusaraztea, kanpainen, kartelen eta komunikazioaren bidez
- ✓Edozein erasoren aurrean jarduteko jarraibide argiak ezartzea.
- ✓Eragindako pertsonarengan arreta egokia, errespetuzkoa eta zentratua bermatzea.
- ✓Inguruko baliabide instituzional, sozial eta komunitarioekiko koordinazioa bultzatzea.
- ✓Langileen etengabeko prestakuntza bermatzea berdintasunaren, indarkerien prebentzioaren eta LGTBQ+ aniztasunaren arloan.

4. TERMINOLOGIA

→ Indarkeria sexista:

- ◆ Emakume izateagatik jasaten den indarkeria, gizonek erabiltzen dutena, emakumeak kontrolatzeko eta haien gainean agintzeko. Genero femeninoaren parte izatean oinarritzen den indarkeria-egintza oro, ondorio gisa emakumeei kalte edo sufrimendu fisikoa, sexuala edo psikologikoa eragiten diena edo izan dezakeena, bai eta ekintza horien mehatxuak, derrigortzea edo askatasuna arbitrarioki kentzea ere, bitzta publikoan zein pribatuan gertatu.
- ◆ Emakumeenganako indarkeriaren kontra jarduteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legeak emakumeen aurkako indarkeria deitzen duena.

→ Genero indarkeria:

- ◆ Kultura matxistak ezarritako genero, sexu eta sexualitatearen inguruko arau sozialak hausten dituen ororen aurkako indarkeria.
- ◆ Indarkeria fisikoko eta psikologikoko ekintza oro, sexu-askatasunaren aurkako erasoak, mehatxuak, derrigortzeak edo askatasuna arbitrarioki kentzea barne, diskriminazioaren, desberdintasun-egoeraren eta gizonek emakumeekiko dituzten botere-harremanen adierazpen gisa, horien gainean egikaritzen dutena edo egikaritu izan dutena haien ezkontideek edo haiekin antzeko afektibitate-harremanen bidez lotuta daudenek edo egon direnek, nahiz eta elkarrekin bizi ez.



(1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurkako babes integraleko neurriei buruzkoa).

→ **Sexu-indarkeria:**

- ◆ Baimenik gabeko sexu-izaerako edozein ekintza, indarkeria, larderia, prebalentzia edo manipulazio emozionala tartean direla, sexu-harremanak erakustea, behatzea eta inposatzea barne: sexu-erasoa, sexu-abusua, lan- edo hezkuntza- arloko sexu-jazarpena eta familia-, komunitate-, hezkuntza- eta lan-esparruetan eta esparru publikoan egindako sexu-abusua barne. (14/2015 Foru Legea, apirilaren 10ekoa, Emakumeen Aurkako Indarkeriari Aurre Egitekoa).
- ◆ Bortxaketa izango da sexu-erasoa, baldin eta baginatik, uzkitik edo ahotik haragitzea bada edo lehenengo bi bide horietako batetik gorputz-adarrak edo objektuak sartzea bada. (art. 179 kode Penaletik).

→ **Sexu-jazarpena:**

- ◆ Sexu-jazarpena da sexu-izaerako edozein jokabide, ahozkoa, ez-ahozkoa edo fisikoa, jasotzen duen pertsonak nahi ez duena, pertsona baten osotasun fisiko edo psikologikoaren aurka egiteko asmoa duena edo ondorio hori eragiten duena (Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa sexu-jazarpena eta sexuagatiko jazarpena debekatzeko dituen art. 179 kode Penaletik).

→ **Eraso sexistak:**

- ◆ Erasoa botere gehiegikeria da, pertsona batek beste bati egiten diona: ez da gaizki-ulertu bat, ezta gatazka bat ere. Erasoa bat gertatzen da pertsona bat erasotua sentitzen denean; bakoitzak bere mugak ditu, aldakorrak eta subjektiboak direnak. Ez da zilegi inoren mugak zalantzan jartzea.
- ◆ Ezerk ez du justifikatzen eraso bat (ez drogek, ez jokabideak, ez egoteko edo jarduteko moduak...)

→ **Indarkeria LGTBIfobikoa/Gorroto delitua:**

- ◆ Biktimaren sexu-joera, identitate edo genero-adierazpenarekiko aurreiritziek eragindako indarkeriazko edozein ekintza (fisikoa, ahozkoa, psikologikoa).

→ **Sexu-orientazioagatiko jazarpena:**

- ◆ Sexu-orientazioagatiko jazarpena honela defini daiteke: sexu-orientazioagatik pertsona bat diskriminatzen, umiliatzen, beldurtzen edo iraintzen duen edozein jokabide edo jarrera. Jazarpen mota hau mespretxuzko iruzkinen bidez, iseken bidez, gizarte-bazterketaren bidez, zurrumurruak zabalduz edo bere sexu-orientazioak eragindako pertsonaren duintasuna eta ongizatea kaltetzea helburu duen beste edozein ekintzaren bidez ager daiteke.



5. ANTOLAMENDU-EGITURA

Kudeaketa- eta jarraipen-egitura: Establezimenduaren esleipendun den enpresak edo pertsonak konpromisoa hartzen du indarkeria matxistak eta lgtbiq-fobikoak prebenitzeko, detektatzeko eta artatzeko barne-protokoloaren kudeaketa- eta jarraipen-egitura sendo bat sortzeko.

Jarraipen Mahaiaren osaera:

- Lekua kudeatzen duen enpresako arduradunak

Jarraipen-mahaiaren eginkizunak:

- **Prebentzioa:** Mahaia arduratuko da establezimenduan prebentzio-neurriak sustatzeaz. Jarduerak honako hauek izan daitezke:
 - Genero berdintasunari, aniztasunari eta jazarpenaren prebentzioari buruzko etengabeko prestakuntza sustatzea.
 - Jazarpena eta diskriminazioa bere forma guztietan definitzen eta debekatzen duten politika argi eta irisgarriak ezartzea.
 - Protokolo honen existentziaren inguruan aktiboki informatzeko betebeharra
 - Espazio komunetan, informazio-materialen bidez (gidak, bideoak, posterrak) informazio pasiboa emateko betebeharra.
 - Langile guztiek elkarrekiko errespetuan eta duintasunean oinarritutako lan-harremanak izateko ardurak dutela adierazteko betebeharra.
 - Lan-kontratuetan enpresaren edo entitatearen prebentzio- eta jardute-protokoloarekiko konpromisoa ezartzen duten klausulak txertatu.
 - Tokiko erakunde publikoek bultzatutako sentsibilizazio kanpaineekin bat egitea
 - Erakundearen komunikazio guztietan hizkuntza inklusiboa sustatzea eta erabiltzea
- **Jarduera:** Jarraipen Mahaiak indarkerien aurrean arreta emateko adostutako jarraibideak martxan jartzeko konpromisoa hartu du. Dokumentu honen amaieran azaltzen diren jarraibideak.
- **Ebaluazioa:**
 - Emaitzen jarraipena: protokoloaren aktibazioak, ebazpenak, bildutako datuak, etab.
 - Protokoloa berrikustea eta eguneratzea. Beste estamentu publiko eta sozialekin koordinatzea.
 - Ezarritako protokoloaren aplikazioari buruzko urteko txostena egingo da

6. APLIKAZIO ESPARRUA

Protokolo hau honako espazio eta jarduera hauetan aplikatzen da:

- Tabernaren espazioa
- Aterpetxea



7. JARDUERA-JARRAIBIDEAK

Arduradunak:

- Establezimenduaren arduraduna (Jarraipen Mahaikoa)
- Espazioko langileak

ERASOA GERTATUZ GERO EMAN BEGARREKO URRATSAK:

1. BEHATU ETA IKUS ZAITZATEN ZIURTATU

- Adi egon, indarkeria-egoerak identifikatzeko.
- Lokalaren eta langileen posizionamendua identifikatu eta ikusarazi, material korporatiboaren bidez (onarpen-politikei buruzko informazioa ematen duten kartelak).
- Gogoan izan emakumezko langileek ere jasan ditzaketela eraso sexistak edo lgtbiq-fobikoak.

2. EKIN

- Erasoren bat ikusten baduzu: Hurbildu, identifikatu eta galdetu pertsonari ongi dagoen, lagunduta dagoen eta laguntzarik behar duen..
- Erantzunaren arabera:
 - ◆ BAIETZ esaten badu: lagundu leku lasai batera eta ziurtatu ez dela bakarrik geratuko
 - ◆ EZETZ esaten baduzu: Azaldu protokolo bat dagoela eta bere esku dagoela
- Ez badago egoera onean (zaurgarritasun kimikoa...)
 - ◆ Leku seguru bat eskaini.
 - ◆ Telefono dei bat eskaini iezaiozu, bila etorriko zaion norbaiti deitzeko edo bere lagunak aurkitzeko.
 - ◆ Bere etxera eramanen duen taxi bat eskatzea proposatu iezaiozu.

3. LAGUNDU

- Lasaitasuna eta konfiantza eskaini, eta enpatiaz jokatu.
- Eranskinean jaso diren arreta-baliabideen berri eman.
- Alde egin baino lehen, ongi dagoela ziurtatu.

4. ARBUIATU:

- Erabili onarpen-politika lokala uzteko eskatzeko. Horri uko egiten badio, polizia-kidegoei laguntza eskatzea baloratuko da
- Lokaletik ateratzen dela gainbegiratu, baita jarrera oldarkorrekarekin ez duela jarraitzen ere.



5. SEGIMENDUA ETA EBALUAZIOA

- Osatu txostena egiteko fitxa eraso dokumentatzeko. Horrek konstantzia izaten eta jarraipena egin ahal izaten lagunduko du

8. BALIABIDEAK

112 SOS NAFARROA	Arreta-protokoloa aktibatuko da; protokolo horren bidez, laguntza psikologikoa, sanitarioa, legala eta poliziala eskatzeko eskubidea duzu.
EAIV-IPARMENDEBALDEA	Genero-indarkeriaren biktimei arreta integrala emateko taldea: <ul style="list-style-type: none">● Helbidea: Bidaburua kalea, 5. 31610 Atarrabia● Telefonoak: Telefonogunea: 848 46 38 50/EAIV: 848 46 38 60● Posta elektronikoa: eaivcomarcaynorte@fundaciongizain.es● Arreta-ordutegia: astelehenetik ostegunera, 08:00etatik 19:00etara, eta ostiralean, 08:00etatik 17:00etara.
016	Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko informazioa eta aholkularitza.
CAIVS - SIAIZ	Indarkeria Sexualei Arreta Integrala Emateko Zentroa <ul style="list-style-type: none">● Irekia: 24 h/365 egun● caivs@fundaciongizain.es● Whtsp: 621690351● Tfn: 848463999
KATTALINGUNE	Nafarroako Gobernuaren LGTBI+ pertsonentzako Arreta Integraleko Zerbitzua: <ul style="list-style-type: none">● P. de la Inmaculada, 1 (Lizarrako Udala)● T: 747 413 786● tierraestella.lizarraldea@kattalingune.org

